



## ENE 2008 Saria! Sortu zuk zeuk zure komikia!

Eusko Ikaskuntzaren Gazteria sailak ENE 2008 Sarirako deialdia egin du! Sortu zuk zeuk zure komikia!

### Gaia

Datorren abenduaren 3an Euskararen Nazioarteko Eguna (ENE) ospatuko da, eta Eusko Ikaskuntzak, ENEren sortzailea den aldetik, euskal gizarteak parte har dezan sustatu nahi du. Horretarako komiki bat aurkezten dizu eta istorioaren zure bertsioa sortzea proposatzen dizu.

### Parte-hartzaileak

Lehiaketan nahi duten pertsona guztiek parte hartu ahal izango dute, inolako mugarik gabe.

### Hizkuntza

Lanak Euskaraz, Gaztelaniaz, Ingelesez edo Frantsesez egin ahal izango dira.

### Epea:

Komikia jasotzeko epea 2008ko abenduaren 8an amaituko da, 14:00etan.

### Istoriotxoaren aurkezpena

Lana [WWW.EIGAZTE.COM](http://WWW.EIGAZTE.COM) webgunearen bitartez aurkeztu ahal izango da, bertan zehazten den bezala, edo komiki oso bat bidaliz, dagokion testuarekin bunbuiloetako bakoitzean, eta datu pertsonal hauek erantsiko dira:

Izena  
Abizenak  
Jaioteguna  
Posta-elektronikoa  
Telefona

Hurrengo helbidera bidali behar da:

Eusko Ikaskuntza- Sociedad de Estudios Vascos

Gazteria Saila

Miramar Jauregia, Mirakontxa 48

20.007 Donostia

Tel. 943 31 08 55

### **Epaimahaia eta epaia**

Epaimahaia marrazketarekin eta literaturarekin lotutako 3 lagunek osatuko dute, Eusko Ikaskuntzak izendatutakoak.

### **Saria**

500 Euro.

### **Jabetza intelektual**

Saritutako komikia eta ondoriozko ustiapen eskubideak Eusko Ikaskuntzarenak izango dira, ustiapen eskubide horiek indarrean dauden denbora horretan guztian, lurralde eremu globalerako, horiek erreproduzitzeko helburuarekin, digitalizazioa, banaketa, jakinarazpen publikoa barne direla, eta komunikazio globalerako sareei uztea, eta eraldaketa ere bai, itzulpena barne.

### **Oinarriak onartzea**

Lehiaketan parte hartzeak oinarri hauek guztiak eta epaimahaiaren erabakia onartzea dakar.